

Frackingaren gainbehera munduan

Frackingaren unea. 2006an eman zen ohiko petrolioaren historia-ko erauzterik txikiena. Harrez geroztik petrolio ekoizpena %30 hazi zen frackingari ezker, baina 2014an eten handia izan zuen. Ondoren berriz berreskuratu zen produkzioa eta gaur egun negozio honetan ari diren enpresak bata bestearen atzetik erortzen ari dira. AEBak munduko petrolio ekoizlerik handiena bihurtu ziren eguneko ia 12 milioi upeleko ekoizpenarekin, beti lehena izan den Saudi Arabiaren aurretik, baina herrialde honek bere produkzioan erabilitakoa baino 100 aldiz energia gehiago erabilia.

2012 eta 2019 artean, oraindik COVID-19aren inongo berririk ez zenean, 30 konpainia handien artean 50.000 milioi dolarretik gora galdu zuten

Oso garestia. Haustura hidraulikoa edo frackinga aspaldi ezagutzen zen, baina oso garestia izan da -500-5.000 metro-raino jo behar da lur azpian- eta ez da erabili izan modu masiboan ohiko petrolio gordina urritzen hasi arte. Funtsean, energia berreskuratze-tasa (EBT) txikia du, hau da, energia kopuru handia inbertitu behar da energia lortzeko. Kasurik onenetan eman izan du EBT 1:5 / 1:10 artean (1:5, inbertitutako energia unitate 1etik 5 lortzea). Baina izan dira baita ere 1:1eko EBTak, hau da, ez da energiari irabazi.

Hondamena. Frackingaren industria beti bizi izan da zenbaki gorrietan, baina, Aretxabalak dioenez, dolarrek artifizialki eutsi izan dio. 2012 eta 2019 artean, oraindik COVID-19aren inongo berririk ez zenean, 30 konpainia handien artean 50.000 milioi dolarretik gora



galdu zuten. Eta 130 enpresa handien galerak (Europako) bilioi bat dolarre-raino iristen dira. Ospetsuak izan ziren 2006-2016 artean ExxonMobil Corporationeko zuzendari exekutiboa izan zen Rexon Tillerson-ek 2012an New York Times-i adierazitakoa: "Frackingaren negozioarekin alkandora ere galdu dugu". Gero Donald Trumpek energia idazkari izendatu zuen. 2014an 100 dolarretan izan zen petrolio upela -pandemian 20tik behera ere jaitsi da- eta orduan ere ez zen errentagarria izan.

Gasa ere larri. Frackingaren bidez erauzten da neurri handi batean gasa eta trantsizio ekologikorako erregai bezala ikusi izan da, baina gero eta gehiago jartzten da zalantzan hori, bere erauzketan metano asko askatzen delako besteak beste. AEBetan Massachusetts, Kalifornia eta New York-ek gasaren erabilera baztertzeko prozesuari ekin diote eta dagoeneko Kaliforniako 30en bat hirik

eraikuntza berrietan gasaren erabilera debekatu dute. Finantza hondamenaz gain, hondamendi ekologikoa ere oso handia izan da, eta hauen harira herri-tarren eta enpresen arteko ehunka auzi izan dira epaitegietan.

Akabo European. European dagoeneko ez da fracking gasik erauzten. Polonia eta Errumania puntan ibili ziren gas mota honen ekoizpenean, baina lortutako gasa oso zikina zen eta ez zuen lortu merkatuan sartzea. Euskal Herrian ere izan ziren zundaketak egiteko baimenak, baina azkenean Nafarroako Legebiltzarrak 2013an debekatu zuen haustura hidraulikoa eta Eusko Legebiltzarrak 2014an. Espainiako Konstituzio Auzitegiak atzera bota zituen parlamentuon ebazpenak, eskumen horiek Espainiako Gobernuarenak zirela argudiatuz. Madrilgo gobernuak prestatzen ari den trantsizio ekologikorako legearekin, ezingo da fracking jarduerarik bideratu estatuan. ●